

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1988ko Abendua 16 3. zenbakia Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

### SANTO TOMAS: BASERRITARREN JAIA

Abenduaren 22an, Arrasaten Santo Tomaseko feria egiten da. Orain urte batzu desagertzeko zorian egon bazen ere, badirudi berriro indarra hartu duela jai honek.

Txistorra, txerria, ttuntturuntoak, herri-kirolak, etab... baserriatarren feria denon artean alaitasunez ospatzeko.

Bere jatorrian aztertu nahian, Juanito Leibarrengana jo dugu (10. orr.)



*Santo Tomasetan feria jaiaren erdian*

**Jon Igoa**, 4. denboraldia Sansen jokatzeko. Bere ilusioa... Errealera salto egitea. (19. orr.)

**Modesta Gallastegi**, hainbat urtetan Santo Tomaseklehiaketaren irabazle: "Ilun ikusten dut baserriatarren etorkizuna".

(17. orr.)

#### ORAIN ETA HEMEN


– Arrasateko ospitaleak ez ditu gutxienezko baldintzak betetzen.

(7. orr.)

– Hormak garbitzeko kanpainari ekin zaio.

(6. orr.)

– Asteazkeneko greba ia erabatekoa izan zen, bai Arrasaten bai Euskal Herrian bai Estatu espainiarrean ere. Hau dela eta, asteakaria ostiralean barik larunbatean kaleratuko da.



# Arrasate

# Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 794612

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

|                                     |        |
|-------------------------------------|--------|
| Arrasateko Eskualde-Ospilatea ..... | 795300 |
| Igualatorioa .....                  | 790500 |
| Santa Agedako ospitalea             |        |
| (gizonak) .....                     | 793900 |
| (emakumeak) .....                   | 794411 |
| Buru osasunerako zentrua .....      | 799011 |
| Famili medikuntzarako zentrua ..... | 790500 |

### Gurutze gorria:

|               |        |
|---------------|--------|
| Bergara ..... | 765576 |
|---------------|--------|

### DYA

|                |        |
|----------------|--------|
| Antzuola ..... | 766291 |
|----------------|--------|

### Anbulatorioak

|                    |              |
|--------------------|--------------|
| Arrasate .....     | 795200       |
| .....              | 791357       |
| Oñati .....        | 780852       |
| Eskoriatza .....   | 798896       |
| Aretxabaleta ..... | 797458       |
| Aramaio .....      | (945) 455116 |

### Anbulantziak:

|                              |        |
|------------------------------|--------|
| Gipuzkoako ambulanziaz ..... | 458744 |
|------------------------------|--------|

### Udaltzaingoa:

|                    |        |
|--------------------|--------|
| Oñati .....        | 780411 |
| Bergara .....      | 761469 |
| Arrasate .....     | 791439 |
| Aretxabaleta ..... | 791052 |
| Eskoriatza .....   | 790322 |

### Ertzantza:

|                |        |
|----------------|--------|
| Arrasate ..... | 797199 |
| Bergara .....  |        |

### Suhiltzaileak:

|                                   |        |
|-----------------------------------|--------|
| Udal taldea .....                 | 790900 |
| Udal taldeko suhiltzaile          |        |
| buruaren helbidea .....           | 792072 |
| Zubillagako Eskualde Parkea ..... | 782800 |

### Matxurak:

|                                  |        |
|----------------------------------|--------|
| Urak (udal zerbitzua) .....      | 790900 |
| Elektrizitatea (Iberduero) ..... | 790581 |

### Garraloak:

|               |        |
|---------------|--------|
| Taxiak .....  | 791222 |
| P.E.S.A. .... | 791419 |

### Hirugarren adinarentzako zetruak:

|                                 |        |
|---------------------------------|--------|
| Iturbide Egoitza .....          | 797211 |
| Abaroa jubilatuen egoitza ..... | 798157 |

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

|                                 |        |
|---------------------------------|--------|
| Deba Garaiko kontsumitzaile eta |        |
| Erabiltzaileen Elkarte .....    | 798777 |

### ABENDUAK 16, OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El click"  
Novedades (Bergara): "La última tentación de Cristo"
- Guardiako farmazia: Español

### ABENDUAK 17, LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Hidden"  
Novedades (Bergara): "La última tentación de Cristo"
- Guardiako farmazia: M.Corcuera; Elcano
- SANTAMASA IX. PILOTA TXAPELKE-TAKO azkena.(pre-benjamin, alevin, pre-juvenil eta ume maila). Goizeko 11etan, Iurripeko pilotalekuan.
- Bernardo Atxaga idazlearekin solasaldia. "OBABAKOAK" liburuari buruzko zenbait alderdi. Arratsaldeko 7.30etan Monterroneko liburutegian. 16-17 urte bitarteko gazteek BERNARDO ATXAGA, NAHI NUKE JAKIN, solasaldia izango dute arratsaldeko 4.30etan Monterron Kultur-Etxean. Antolatzailea AED elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Prestaketa lanetan Eskoriatzako Irakaslea Eskola aritu da.
- OSKORRI taldearen jaialdia. Gaueko 10.30etan Amaia antzokian.
- Bergarako Udal Banda, Musika Eskola Orkestra eta Aritzeta Abesbatza entzun ahal izango ditugu Bergarako Pilotalekuan, gaueko 10.30etan.

### ABENDUAK 18, IGANDEA

- Zinea: Alai: "Hidden"  
Aretxabaleta: "De tal astilla tal palo"  
Novedades (Bergara): "La Banba" goizez; "La última tentación de Cristo", arratsaldez
- Guardiako farmazia: J.A. Irizar, Erguin 1
- Besaide Mendizale Elkarteak antolatutako irteera. Ibilbidea: BIDANIA, ERNIO, GAZUME, AIA, ORIO. Irteera, goizeko 7etan, Portaloitik.
- "Santamasak 88" festen egitarauaren barruan:
  - SANTAMAS X. KROSSA. Ume eta nagusi maila, goizeko 11etan, herriko kaleetan zehar.
  - AZKONA taldearen emanaldia eta UMEENTZAKO JOLASAK, arratsaldeko 4retan.
  - KILIKIEN KALEJIRA Arratsaldeko 7etan, herriko kaleetan zehar.
  - ZEZEN SUZKOA, Sebero Altuben arratsaldeko 7.30etan.
  - EGUZKI musika taldearekin dantzaldia, Sebero Altuben, gaueko 8etan

### ABENDUAK 19, ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Hidden"
- Guardiako farmazia: L.Amezua; Santa Marina 32

### ABENDUAK 20, ASTEARTEA

- Zinea: Alai: ez dago sesiorik
- Guardiako farmazia: A.Ruiz; Magdalena 3

### ABENDUAK 21, ASTEZKENA

- Zinea: Alai:
- Guardiako farmazia: A.M. Morales; San Andres
- "SANTAMASAK 88" festen egitarauaren barruan:
  - Arratsaldeko 7etan, Etxafleroak, Kilikiak eta Erraldoien kalejira, Arrasateko dultzainariak lagundurik.

- Arratsaldeko 7etan, Monterron Kultur Etxean, AED Elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatutako Itzulpen labor, Ipuin, Poesia, Bertso paper, Argazki eta Bideo lehiaketan sari banaketa.
- Euskal Liburu eta Disken Azoka zabalduko da Sebero Altuben (frantziskotarren aretoan.
- Santamas TXERRIAREN aurkezpena eta zozketa-txartelen salmenta. Arratsaldeko 7etan Eskoriatzako GOROSARRI abesbatzaren aktuzioa herriko kaleetan zehar, arratsaldeko 7.30etatik aurrera.
- ORIA txarangaren kalejira 7.30etatik aurrera.
- AKELARRE musika taldearekin dantzaldia, Biteri aparkalekuan, gaueko 10etan.
- Arrasateko DULTZAINARIEN kalejira, gaueko 11etatik aurrera.

### ABENDUAK 22, OSTEGUNA

- Zineak: Alai:
- Guardiako farmazia: A.Azcoaga;
- Sto. Tomas eguna denez gaurko egunean ekintza ugari izango da gure herrian:
  - Goizeko 9.30etan:
    - Etxafleroak eta LORE GAZTEAK eta ARRASATEKO DULTZAINARIEN kalejira,
  - Goizeko 10etan:
    - Azokan: fruitu, barazki, hegazi eta gazten lehiaketa, erakusketa eta salmenta.
    - Nafarroa etorbidean eta Zaldibarren: Ganadu eta nekazal makineriaren feria eta erakusketa.
  - Goizeko 11etan,
    - Biteri aparkalekuan: Artisau-lanen erakusketa eta exhibizioa.
    - Arrasateko Dultzainari, Trikitilari, Ituren-Go Tuñuorekin eta Koplariekin kalejira.
  - Eguerdiko 12etan: Zaldibarren:
    - Santamas Aizkolari-Txapelketa. Euskadiko Txapelketako lehenengo lau klasifikatuak parte hartuko dute, Mindegia, Olazagasti, Larretxe eta Mendizabel. Bakoitzak 54 hazbeteko zazpi enbor eta 72 hazbeteko bat ebakiko dituzte.
  - Eguerdiko 12.30etan:
    - Zaldibar Pilotalekuan: Harrijasotzaileak, Iñaki Perurenaren exhibizioa eta Euskadiko harrijasotzaile onenak, (Goenatxo, Bigitegi, Pato eta Gil), bost minututako txandatan Arrasateko bolo-harria jasotzen saiatuko dira.
  - Arratsaldeko 2.30etan, Polikiroldegian:
    - Herri bazkaria, bertsolari eta trikitilariak. Bazkal ostean giro bikaina izango da. Bazkarirako txartelak AEDko tabeman eta HIRE liburutegian egongo dira salgai.
  - Arratsaldeko 4retan, Amaia Antzokian:
    - Haurrentzako filma: "LA HISTORIA INTERMINABLE". Sarrerak DOHAIN izango dira.
  - Arratsaldeko 7etan, Amaia Antzokian:
    - BERTSO SAIOA: Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Ion Sarasua, Danel Goikolea eta Jon Iñaki Izarzelai. Gai-jartzailea: Aitor Sarasua.
  - Arratsaldeko 7.30etan, Herriko kaleetan zehar, TXARANGA-INCANSABLES
  - Gaueko 10etan, Biteri Aparkalekuan, dantzaldia Gaurko Berri taldearekin.
  - Gaueko 12etan, Biteri aparkalekuan, Txerri-Zozketa

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jaun Luia Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Jose Luis Agote

**Erredakzio**

**-kontseilua:** Jose Felix Diaz  
de Tuesta  
Harry Zaraia  
Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Jose Mari Velez  
de Mendizabal

Mikel Irizar  
Karme Zuazubizkar  
Jerardo Elortza  
Juan Martin Elexpuru  
Mikel Arregi  
Eukeni Olabarieta  
Arantxa Lizaso

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea


**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Legé-Gordailua:**

**ISSN:**

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



## On Jorgeren etsipena

On Jorgeri (Otezari) irakurtzea nahiz entzutea ariketa gogorra gertatzen da; batez ere, zer adierazi nahi duen asmatu nahi izanez gero. Zer dioen eta nola, edozeinek igar dezake; zailena hitzen atzeko joko misteriotsuan aurkitzen da.

Beti pentsatu dut, artistak berea den arloan azaldu behar duela barruan daraman kezka. Horrela ez bada, etsipena ezohizko baliabidez kaleratzen delarik, artistaren beraren iaotasunaz hasten naiz zalantzatan.

“Quosque tandem” izan zen On Jorgeri irakurri nion lehen istorioa. Eta, ni bezala beste hainbat gogomamiz hain gose geundenez gero, itsu-itsuan irentsi ez, baina txalotu egin genuen liburuan azaldutako ikasgaia. Txalotu eta baita eskertu ere, gurea ei zen espekto bitxi hartan geure buruak inplikatu behar genituela sinisterazi zigula uste bait dut. Otezarekiko nire esperientzia gogorra “Ejercicios espirituales en un túnel” ospetsuak izan ziren. Bietako bat desbideratua zegoen lehen liburu hartako elkarren arteko aburu antzerakotik. Zerbaitetan ez genuen gure haria ezkontzen. utsune nabaria irekitzen zen gure artean.

Oteiza ezagutzeko aukera izan dut. Ez, agian, berari buruzko tesia egiteko bezain ongi; baina, azken bost urteotan On Jorgek erabilitako hariak zeintzuk izan diren aztertu ahal izan

dut. Horrexegatik, aurrekoa baino gogorragoa gertatu zait “Cartas al príncipe” deritzan liburuaren edukinaz jabetzea. Eta, garbi diot, ezin naiteke egilearekin ados egon.

Ez dut esan nahi -ez diot, hobe- Oteiza oro har oker dagoenik. Baina, berriz, barneko bere frustrazioa plazaratzeko aukeratu duen bidea ez dela egokiena azpimarratu nahi dut. Eta baita salatu ere, artearen onerako.

Bere lanaren porrota justifikatzeko artekideena gutxiesten eta arbuatzen diharduen gizakiari norbaitek zera esan beharko lioke, hobe duela Alzuzan behin eta betiko geratzea... iraina ahotik baztertzen ez duen bitartean. Maiztasun bitxiz, erdal egunkarietako bere artikuluak “Utz nazazue bakean...nazkatuta nago” esaeraz amaitzen dituen artistak, duen eta den guztia herriari zor diola gogoratu beharko luke; eta ez duenez dena, berriz, bere buruari leporatu.

Beraz, proiektapeneko teknika hain maisuki erabiltzen dakien oriota-rrari, gogo-ihardunak egiten jarrai dezala eskatuko nioke; gogo-ihardunak, ohi bezala, ixilik eta Jainkoarekiko eta ez gizakiekiko erretolikan..., argiaren printzek Bide Bakarra erakusten dioten arte.

*Josemari Velez de Mendizabal*



# CHASYR 1979 ASEGUROAK

**GASTEIZ**

M. Iradier 15. 233003  
Ordezkaritza

**ARRASATE**

E. Gerrikabeitia 79 74 35  
Andoni Conde. 79 60 08

**EIBAR**

I. Gerrikabeitia 71 21 39  
Isasi 17, 1., esk.



**ARRATA IRRATIA, S.A.**  
FM - 101,5

Goizeko 9etatik  
Gaueko 11ak arte  
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATA IRRATIA  
EUSKAL SINTONIA

## eya

T.B., bideoak, Hi Fi ekipoak,  
eta Amstrad ordenadoreak.

Ikus ezazu Grundig aparatu-  
tuen aukera guztia.

Aukera handia lanpara, ka-  
rril, aplik, foko, mahai-gaine-  
ko lanpara etab.etan.

Iturriotz kalea  
Tfnoa: 790384



**ASEGUROAK**

Zeuzertara behartu gabe, aseguru  
mota guztien informazioa emango di-  
zugu, zure beharretarako egokiena zein  
den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarakoa
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotara-  
rako
- \* Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE

## Kanpazarreko bidea lotsagarri

Zuzendari jauna:

Aspaldi aldrebes izaten zen,  
Kanpantzarreko Bizkai aldeko erre-  
pidea egoten zen negargarri, gure  
aldea txukun samar zegoen bitar-  
tean. Baina auskalo noiztik, Gipuz-  
koa aldeko alderdia dago ezin egoe-  
ra tamalgarriagoan.

Errepidea estu gelditu da duen  
trafikorako, bihurgune txarrez josita  
dago eta zorua zuloz eta konkurrez  
beteta. Egunero batetik bestera ibili  
behar dugunon kotxeek badute si-  
tuazio honengatik orbain ugari.

Arrasatearrok ez dugu hau mere-  
zi. Konpon dezatela, mesedez, aha-  
lik eta lasterren zorioneko errepide  
hau eta denok ibiliko gara askoz  
hobeto.

J. A. Madina

Zuzendari jauna:

Lerro honeik bialtzen dotsut,  
zuk zuzentzen dozun aldizkariari  
ongi torria emun gura dotsat eta.  
Izan be, lehenengo alia ateratzia  
sorpresia izan bazan, astebeteko  
epian bigarrena kalia ikustia sinistu  
ezina egin jat. Eta gainera, bigarrena  
potoluagua eta txukunagua urten da.

Esan biharra dau, aldizkarian  
erabiltzen diezen gaiak, normalian,  
interesgarriak diezela. Bada, oster-  
a, hutsune garbi bat, nire ustez kon-  
ponbide erraza daukana: testu guz-  
tiak eukara batuan dauz eta Arrasa-  
teko euskeriak zuen aldizkarian  
agertu bihar dabela uste dot. Nik ez  
neuke esango aldizkari osua mon-  
dragoeraz jarri bihar danik, baina  
besterik ez bada lekutxo bat, orri bat  
edo, eskaini biharko jakola. Ez dakit  
gehixei eskatzia dan, baina seguru  
nau arrasatear askok eskertuko da-

belá. Besterik barik, animo eta segi  
aurrera.

J.I. Lasa

Zuzendari jauna:

Kanpotik etorri eta euskara ikasi  
eta erabili nahi dugunontzat, bertako  
euskaldunen jokaera inkoerentea da  
gauzarik tristeena. Adibidez, orain  
dela bi aste, larunbat goizean denda  
handi batean AUZO-LAGUNeko  
ordezkari bat zegoen "JANARIN"  
prekozinatuen publizitatea egiten.  
Berak ez zekien batere euskaraz, eta  
banatzen zituen etiketak ere erdaraz  
bakar-bakarrik zeuden, eta ontzien  
etiketak ere erdaraz bakarrik daude-  
la uste dut.

Horrelako gauzak askotan ger-  
tatzen dira zoritxarrez, baina oso pe-  
nagarriak dira, eta AUZO-LAGUN-  
engandik, behintzat, gehiago espero  
dut nik.

Eskerrik asko.

S. J. Turtle

Kaixo:

Bikoitza da eskutitz labur honen  
helburua.

1- Eskerrak ematea euskal aste-  
kari jator hau martxan jarri duzuela-  
ko eta, halaber, animuak ematea  
ahalik eta atseginena egiten saia  
zaitezten. Ez zaizue lanik faltako!

2- Eskaera bat luzatzea: Herriko  
informazio gehiago izan dezaten  
Estatuko gartzeletan sakabanaturik  
dauden Arrasateko eta inguruko  
Euskal preso guztiei aldizkaria bi-  
daltzea. Erredakziotik zuzenean  
bidali ahal diezue edo familiarren  
bidez. Bidezko ikusten al duzue?

Besterik gabe, adeitasunez agur-  
tzen zaituztet.

Eutsi goiari.

Julen A

Noiz egiten dituzu opariak, olentzerotan ala erregetan?

Zergatik?



- *Mari Karmen Garai*  
(etxekoandrea)

Olentzerotan.

Haurrak ikastolara doazenez ohituta daude; niri, egia esan, berdin dit. Olentzero, erregeak edo "San nosequantos".



- *Yolanda* (ikaslea)

Erregetan.

Beti horrela izan delako.



- *Jose Luis Armendia*  
(yoga irakaslea)

Nik gutxitan egiten ditut opariak; egiten ditudanean, olentzerotan.

Denbora gehiago dutelako opariez disfrutatzen.



- *Olatz Etxabe* (Umezaintzako langilea)

Olentzerotan; nire etxean denok.

Zergatik? Beti horrela egin dugulako; txikiak ginenean, denbora gehiago izaten genuelako opariez disfrutatzen; eta orain ba, ez dakit, euskalduna delako.

IRATI

HERRIKO TABERNA

Ferrerias kalea

Arrasate

ZABALETA

LIBURU eta  
PAPERDENA

Zarugalde, 10  
Tfnoa: 79 65 53  
ARRASATE

hire azkeneko tragoa  
OTAMENDIn

Legarreko pabiloia

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22

Tfnoa: 79 32 37



Eguberri on eta urte zoriontsua opa dizue



### Mankomunitateko alkateak Osasun-Sailburuordearekin bildu Arrasaten

Deba Garaia osatzen duten herrietako alkateek aste honetan zehar Dolores Ruiz Osasun Sailburuordearekin bilera bat burutu dute, gure bailarak martxan jartzeko asmoa duen "plan funtzional" delakoa eta Arrasaten beste ospitale baten eraikuntza eztabaidatzeko asmoz.

Bilera honetan, ospitaleari dagokionez ezer erabaki ez bazen ere, oraingo ospitalerako 50 milioitako inbertsioa onartu zen.

Mankomunitateko ordezkarien eritziz, gaur egun dugun ospitalearen eraikuntzak ez ditu gisa honetako etxe batek behar dituen gutxien-

go baldintzak betetzen, hasiera batean tailer izateko eraiki bait zen, honetaz gain lantegiz inguraturik dagoelarik.

Plan Funtzionala sakonean eztabaidatu eta Bergarako Osasun Zentrua anbulategi batetan bihurtzeko eman behar diren pausuak aztertu ziren.

Datorren urtearen hasieratik Deba Garaia Gipuzkoako osasun mapatik desbinkulatzea erabaki zen, bertako bizilagunen osasun arazoak era funtzionalez konpontzeko aurrerapausu garrantzitsu gisa ikusten zutelarik.

### Aramaiona ibaian arraiak hilda

Akramaioana ibaian Santa Agedako hospitalea baino behe-rago arrain batzu ageratu dira hilda, arrazoa zein den ez dakitelarik. Diputaziotik ur muestrak jaso zituzten gertara horren arrazoa argitzeko asmoz. Inguruko baserritar batzu adierazi digutenez, erre-karen alde horretan neguan baino ez da arrainik egoten udara aldean erreka gutziz erreta egoten bait da.

### Autoedizioa IMIn

Aurrera doa, Bilboko IMiko Nerea Etxalde irakaslearekin gidaritzapean, Arrasateko IMIk antolatutako autoedizioari buruzko ikastaroa.

Hamabi dira Arrasate, Oñati, Bergara eta Donostiatik datozen ikasleak, gehienak ere informatika, edizio eta publizitatearen munduei lotuak.

Oraingoz, hiru ikasleko MacIntosh ordenagailu bat jarri du IMIk.

Berrogei ordutako ikastaro hau Abenduaren 21an amaituko da.



**VIGURI, S.A.**

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.

**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN  
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

**VIGURI**, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



## Eskaparate lehiaketa

Santamas festak direla eta Arrasateko Udalaren Kultura-Batzordeak beste urte batzutan egin duen bezala eskaparate lehiaketa antolatu du. Hilak 21ean epai mahaiak herriko kaleetan zehar ibiliko da eskaparaterik onena aukeratzeko asmoz. Sariak honako hauek izango dira: 30 mila pta eta plaka irabazlearentzat eta 25 mila pta bigarrenarentzat.

## Arkitektoek beren proiektuak aurkeztu


Aste honetan zehar, Monterroi Kultur Etxean, Zaldibar estaltzeko dauden hiru proiektuen aurkezpena egin dute arkitektoek. Honen ondoren gai honen inguruan interesa duten herritarrek hobeto ezagutuko dute proiektuen nondik norakoak.

## Kanpazarko errepidea konponduko ote

Denok ezagutzen dugu, gure herritik Kanpazar gainera dihoan errepidearen egoera negargarria; azkenean konpontzeko erabakia hartu du Diputazioak eta horretarako, obren kontrataketarako dealdia luzatu. Lanen aurrekontua hogeitalau milioitakoa da eta burutzeko epea bi hilabetetako.

## Eraikuntzen hormak garbitzeko kanpaina berria Arrasaten

Aste honetako asteartetik aurrera kanpaina berri bat dago martxan Arrasaten, etxeetako fatxadak garbitzeko. Kanpaina hau, gure herriko etxeen paretak gutxienez bi hilabetez kartel eta pintadarik gabe egon daitezen jarri dute martxan, honetarako herritarren laguntza eskatzen dutelarik. Laguntza hau ez dutela lortzen ikusiz gero, kanpaina bertan behera utziko luketela adierazi du Arrasateko Udalaren zerbitzu-batzordeko buru den Jose Luis Lanak. Hemendik aurrera, eta ahal bada, kartelak pegatzeko zela erabiltzea gomendatzen dute, kola edo spraiak erabili beharrean. Udaletxeko fatxadan dauden pintadek lehenasuna izango dute, bertan ikus ditzakegun pintadak lehenbailehen bertatik kentzeko. Eginkizun hau langabetuez osatutako lau taldek burutuko dute.



Hona hemen herriko horma baten itxura

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai, 9 Tfnoa:798997

ARRASATE

## AEDko Lehiaketen aurtengo sarituak

Udaberri honetan AED Elkarteak, Udalaren laguntzaz, euskal kultura sustatzeko asmoz hainbat lehiaketa antolatu zituen, lanak entregatzeko epea azaroaren lean bukatu zelarik.

Partaideak arloz-arlo honela banatu ziren: Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren II. Sariketa: 7; Ipuinak: 34; Poesia: 10; Bertso-Paperak: 28; Komikia: 39; Argazkiak: 32; Bideoa: 2.

Lanak epaitzeko lau epai-mahai ezberdin eratu dira; hauek, dagoeneko, jakinarazi dituzte sarituak izan direnen izenak. Abenduaren 21ean, arratsaldeko 7etan Monterron Kultur-Etxean burutuko den ekintza kultural batean bakoitzak zein sari jasoko duen jakin ahl izango duelarik.

Hona hemen, beraz, epaimahaikide eta sarituak izan direnen izenak:

–**Ipuina:** Epaimahaia: Iñaki Mendiguren, Aitor Antxia eta Miren Murgiondo.

Sarituak: Ion Andueza, Yulen Arriolabengoa eta Diego Martiartu.

–**Poesia:** Epaimahaia: Iñaki mendiguren, Aitor Antxia eta Miren Murgiondo.

Sarituak: Leire Beloki eta Andoni Urzelai.

–**Bertso-Paperak:** Epaimahaia: Patxi Goikolea, Juanito Saizar eta Euxebio Arejolaleiba.

Sarituak: Markel Arizmendi, Jesus Mari Etxezarreta eta Rikardo Gonzalez de Durana.

–**Argazkia:** Epaimahaia: Luis Mari Alvarez, “Pedro Luis” eta Imanol Zubizarreta.

Sarituak: Jaione Lasanta.

–**Komikia:** Epaimahaia: Luis Mari Alvarez, “Pedro Luis” eta Imanol Zubizarreta.

Sarituak: Mario Egues, Alberto Eguzkiza, Jaione Elkoro, Liber Larrea eta Maite Martinez de Arenaza.

–**Bideoa:** Epaimahaia: Luis Mari Alvarez, “Pedro Luis” eta Imanol Zubizarreta.

Sarituak: ez da saririk eman.

Bukatzeko, gogoratu iazko lehiaketetan saritutako lan guztiakin bi liburu: lehena itzulpenekin, eta bigarrena, beste lehiaketa guztiakin osatua. Liburu hauek AED Elkarteak, Arrasateko liburu-dendatan eta Santamas inguruan izango den Euskal liburu eta diska azokan (21tik 24ra) erosteko aukera duzu. Benetan merezi dutela!



J. Garmendia, M. Bengoa, J. Elortza eta X. Mendiguren epahaimahaikoak

–**Iokin Zaitegi II. Itzulpen Laburrak:** Epaimahaia: Jesus Garmendia, Miren Bengoa, Joxe Aranzabal, Gerardo Elorza, Xabier Agirre eta Xabier Mendiguren.

Sarituak: Maider Etxaide eta Andoni Sagarna.

### ZORIONAK...

–Fernando Zabarte elorriotarrari, bost urte espetxeratua egon ondoren, joan zen astelehenean, Abenduaren 12n, libre utzi zutelako.


–Antzuolako 20 emakumeri, lotoan 220 milioi tokatu zaielako. Esan ohi da “el que sigue la consiguiente”, eta kasu honetan, egia bihurtu da; besteren batek ere exenplu hartuko duela suposatzen dugu. Nork harrapatuko!

### Denborapasen soluzioak:

–Gurutzegrama: Esker eskuin: 1.– Benetan. 2.– Arakatu. 3.– Bih. A 4.– Ezindua. 5.– Sa. Tori. 6.– Li. Zirt. 7.–Enea. Ea.

Goitik behera: 1.– Babesle. 2.–Erizain. 3.– Nahi. E. 4.– Ekintza. 5.–Ta. Doi. 6.– Ataurre. 7.– Nu. Aita.

–Asmakizunak: 1.- Zuloa. 2.- Eguratsa, airea. 3.- Baratzuria, berakatzia. 4.- Alkatearen aginte-makila. 5.- Sua. 6.- Arraultza. 7.- Mukia. 8.- Hodeia. 9.- Gatza. 10.- Geriza, itzala.



URIBARRI ETORBIDEA, 1  
TFNOA: 79 75 15

*Argazkilaria*



**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**

**OROTARAKO ASEGURAOAK**

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95


ARRASATE





**Eskontza zibilak, Monterroien**

Orain dela gutxi hasi dira eskontza zibilak Monterroiko jauregian egiten. Eraikuntza zahar honek beste eginkizun bat beteko du hemendik aurrera.



**Euskal Irratia, Arrasaten**

Joan zen larunbatean Euskal Irratikoek programa bat zuzenean Arrasatetik egin zuten. Beroren tresneria osoa Garibai Etorbidean ipini zuten eta handik pasatzen zen jendeari ibili ziren galdetzen.

**Elorrion 16 plateretako bazkaria Ama Birjinaren omenez**

Orain 600 bat urte Elorrion "Ama Birjinaren Kofradia" eratu zen bi helbururekin, lurraldea eta Ama Birjinaren garbitasuna defendatzea, hain zuzen ere. Eta hau dena defendatzea, baina jateko gogoak galdu barik.

Kofradiaren helburuak, denboraren poderioz galduz joan dira, baina kofradeen jateko gogoak, berriaz, lehen bezain indartsu jarraitzen du.

Hau dela eta, urtero kofradia honen kideak 16 plateretako bazkaria egiteko biltzen dira, eta menua ez da aldatu 500 urtetan: zezina, mingaina, Jaeneko olibak, ogi-zopa, paella, garbantzuak haragi egosi eta txorizoz, arbiak aza eta urdaiaz, sei oiloz eginiko salda, bakailaoa Bizkaiko erara eta pil-pilean, kapoiak bere xukuan; eta postrerako: Elorrioko bizkotxoak makatz inperialak, Holandako gazta, sagar gordinak eta gaztain erreak .

Gaur egun 55 kidek osatzen dute kofradia, hauen artean Juan Jose Pujana politikoa dagoelarik. Lehen, noblea izan behar zen kofrade izateko, baina orain bakarrik bi baldintza bete behar dira: gizonetzkoa eta Elorrion jaioa edo elorritar batekin ezkondua izatea.

Aurten 40 kofrade bildu ziren bazkaria dastatzeko. Gargantuak berak deitua izanez gero, gogo handiz parte hartuko zukeen ere betekadan.

Partehartzaile baten esanez, "bazkariak gehiegikeria dirudi, baina ez da hainbesterako. Razioak txikiak dira, eta zaharrenek bakarrik errepikatzen dute".

**BASABE JATETXEA**

**Menu eta afariak  
Boda eta banketeak**

Industrialdea

ARETXABALETA

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAY, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

## “Santo Tomas” baserritarren jaia

“Santo Tomasetako Feriak: (...) hileroko bigarren eta laugarren asteetan (*lehen*) izaten ziren feria guztien erremate bezala. Ganadu-salerosketak, barazki-lehiaketak eta jaialdi herrikoiek (aizkolari, harrijosatzaille eta bertsolari-ek) inguruetakoko baserritar asko erakartzen dute”.

Hitz hauekin aipatzen dira “Mondragón” (Juan Leibar eta Jose Letona, 1970) izeneko liburuan jai honen ezaugarri nagusiak.

Arrasateko Santo Tomasetako feriak badu berezitasun bat, zein egunetan egiten den, hain zuzen ere. Bilbon eta Donostian 21-ean izaten bada ere, Arrasaten, beste feria horiekin bat ez etortzeko, egun batez atzeratu izan da betidanik, eta 22an egiten.

Feria honetaz, Arrasateri dagokionez, behintzat, ez dago historia idatzirik. Aspaldiko ohitura dugu, eta ez dago lehen aldiz noiz egin zen jakiteko modurik ere. Hau dela eta, Juanito Leibarrengana jo dugu, beronen bidez, feriaren berri izateko.

Nolabait definitzeko, Santo Tomasetakoa, batez ere, baserritarren jaia dela esan dezakegu. Jatorrian, baserritar maizterrak ugazabari urteko errenta herrira ekartzen zion eguna zen. Baserritarrak, bere blusarik dotoreenaz jantzita, kapoi onenak ekartzen zizkion ugazabari. Honek, ondoren, bazkaltzera gonbidatzen zuen maizterra.

### Egun batez baserri giroa kalera

Santo Tomasetako feri egunean baserritarra menditik herrira etortzen da, egun batez baserri giroa kalera ekarriz. Hau da,

jatorriz, feria honen oinarria.

Nahiz eta gaur egun zaila suertatu imajinatzea, oraindik urte asko ez dela, ia bailara osoa zen baserritarra. Arrasateko kasuan, Zerka-Osteta zen kalearen eta baserriaren arteko muga markatzen zuena. Hasieran, maizterren eta

keta sortu zen: Arrasate, Zumarraga (Santa Lutzi egunean), etab. en artean.

Arrasaten, gainera, beti Juanito Leibarren esanetan, badagobeste bereizgarri bat: Santo Tomas egunean egiten ziren salerosketako tratuak, eta handik 8 egu-



“Santamasak” azken urteotan berpiztu dira Arrasaten

nagusi edo jabearen arteko tratueguna zena, halako batean jende gehiagorengana zabaldu zen, feria eratuz. Ferian, baserritarrek kalentzarrei —edo auzoetakoko jendeak herrirrukoiei— beren produkturik onenak eskaintzen zizkien: ganadua (Mondragoen, txekorrak, batez ere), barazkiak eta nekazaritzarako lanabesak edo tresnak, gehienbat. Baserritar beronen artean ere ematen ziren trukeak, jakina.

Kontutan izanik egun hauetan beste hainbat herritan ere egin izan zela feria, hauetariko bakoi-tzak hogeiren bat kilometrotara zabaltzen zuen bere eragina, eta azkenean, ferialeku ezberdinen artean nolabaiteko eremu-bana-

netara elkartzen ziren berriz ordainketak egiteko. Horrela, bi egunetan egiten zen jaia. Tratu guztiak ahoz aho egiten ziren, bitarteko paper barik. Elkarren arteko konfidantza nagusi zen artean garai haietan.

Jai honek, bestalde, inoiz ez du zerikusirik izan elizarekin; ez dugu erlijio-jaia.

Feria honetan bi sinbolo nagusi daude: txistorra eta txerria. Azken honen presentziak ez dauka esplikazio zehatzik. Mimetismoz jarritako ohitura dugu, beste leku batzuetan feriaren nolabaiteko zentru sinbolikoa zen eta usario hori hona ekarri zuten, beste-rik gabe.



**Juanito Leibar**

Orain 10 bat urte Arrasaten Santo Tomas lan eguna zen. Hau dela eta, feria desagertzeko zorian ibili zen, baina azken urteotan ez dago dudarik berriz berpiztu dela, eta indar handia hartzen ari da arrasatearren artean.

Jaiari buruzko dokumentu idatzirik ez dagoenez, ospakizunaren programa-orrietara jo dugu eta programazioak, funtsean, berdintsua jarraitzen duela urtez urte nabaria da.

Horrela, ikus ditzagun 1958ko programako ekintzarik inportanteenak zeintzuk ziren: 21ean: goizeko 10,30etan Meza Nagusia; arratsaldeko 7etan "Bizarzurri, acompañado de su brillante cortejo, recorrerá las calles de la villa, deteniéndose al final en la Plaza de España a recoger la correspondencia para los Reyes Magos". 1958 urtea zen.

22an: Hegazti eta Barazki-lehiaketa. Honako sari hauek banatu ziren: kapoi erakusketa: lehen saria: 150 pta; untxiak: 60

pta; sagarrak: 75 pta; makatzak: 150 pta; barazkiak: 150 pta. Goizeko 11etan, "Colorín y sus muñecos" Ideal Zinema 12etan, "Gran Festival Vasco", atsedendietan Basarri eta Uztapideren bertso-saioak. Arratsalde eta gau- ez, hiru dantzaldi-mota zegoen: arratsaldean (4,30-7,30) Biteriko Lorategian, "Erromeria"; 8etatik 11,30ak arte, "Bailables" España Plazan; eta, gau- ez (9,30-1), dantzaldia azoka plazan. Ondo antolatzen zuten dantza kontua, du- darik gabe.

### Aurten, denok baserritar jantzita

Aurtengo programari dago- kionez, ez da nobedade handirik, jaiaren oinarria feria bait da eta hori inoiz ez da aldatuko. Dena dela, aurtengoa nahiko kompleto- a da (ikus 2. orriko agendan). Pro- grama Santo Tomas Batzordeak eginikoa da Koadrilen Komisiao-

ren partizipazioarekin. Batzorde hau auzoetako alkateek, Udalak eta AEDk osatzen dute.

Abenduaren 17rako Rock Jaialdia egiteko asmoa bazegoen ere, azkenean ezinezkoa suertatu da. Kiroldegia kontzertua hasi bai- no bost ordu lehenagotik hutsik egon behar zuen beharrezko tres- neria osoa muntatzeko. Baina, ki- rol ekintzak zeudela eta, ezinez- koa zen eta Rock Kontzerturik ez da egongo.

Koadrilek herri bazkaria anto- latu dute feria-egunerako. Ki- roldegian izango da, bertsolari eta trikilariek animaturik.

Nobedade gisa, egun hone- tan kalera baserritar jantzita irte- tzeko deialdia egiten diote koa- drilek jendeari.

Azkenik, gogorarazi urtero bezala jai subentzionatzeko txe- rri-zozketa egingo dela. Ondo pasau eta gutxi gastau!!!



**Iturengo Ttuntturunttoak, jaiaren beste sinbolo bat**



**KILL-KOLO**

Ferrerias 21 Tfnoa. 797006  
ARRASATE

**Urrezko bitxiak**  
**18 kilatetako legezko urrea**

Erdiko kale 23  
Tfnoa: 792047

**NAROKI**

## Angiolilloren urkamendia



Esan bezala, 1897ko Abuztuaren 8an atxilotu zuten Angiolillo, Canovas hil eta berehala. Bergarako espetxera eramán zuten. Epaitegi ostean dago gure Barruti judizialeko espetxea, San Pedro elizaren ia aurrez aurre.

Garai hartan tankera honetako epaiketak berehala egiten ziren. Abuztuaren 15ean bildu zen Bergaran Guda-Kontseilua, presidente Don Eduardo Eleizegi teniente koronela zela, fiskala Carlos Escosura teniente, eta ofiziko defendatzailea, Carlos Gorria, hau ere ejerzitoko teniente. Fiskalak heriotz zigorra eskatu zuen, premeditazio eta alebosiazko hilketatzat joz eta ez zela zirkunstantzia aringarrik argudiatuz. Defendatzaileak benebolentzia eskatu zuen, Angiolillo pertsona heldugabea eta zentzun gutxikoa zela arazoituz. Anarkistak hitza hartuz-gazteleraz, italiar azentuaz-bere ekintza esplikatú nahi izan zuen: "Ez dut ekintza hau Canovasi gorroto pertsonala niolako egin,

ditudan idealengatik baizik. Bada- kit hil behar dudala. Lasai nago, bete dut-eta nire betebeharra: bengatu ditut nire Bartzelonako anaiak". Gero bere ideia politikoak azaldu nahi izan zituen baina epaiburuak hitza kendu zion. Es-kuak eta hankak lotu, sonbreroa jantzi eta gartzelara eramán zuten berriro. Burgosko audientziako borrero titularrak honantzako bi- dea hartzen du. Bergarako alka- teak debekatu egiten dio kalean zehar ibiltzea.

Abuztuaren 20ko goizeko hamaikak dira. Gartzelako patio aurreko kalean, erreja atzean, milaka pertsona tiraka eta bultza- ka dabilta urkamendia ikusteko lekua hartu nahian. Jendea arbola puntetan, jendea leihoetan, jen- dea teilatuetan. Tauladi gainean heriotz-makina prest: "Garrote vil" delakoa. Angiolillok laguntza- rik gabe igotzen ditu eskilarak eta ohizko lasaitasunez, jendearenga- na zuzenduz, "Germinal!" oi- hu- katzen du. Gero urkabeen eserit- zen da. Borreroak bere langintza burutzen du tornua anarkistaren lepo bueltan estutuz.

Bergarako kanposantu on- doan hilobiratu zuten, fedegabeak eta horrelakoak lurperatu ohi zi- ren lur-sailean.

Juan Martin Elexpuru

## Elhuyar taldekoen kolaborazioa

### Ontzi garbiketa ultrasoinuz

Xabier Barandiaran

Bai, ondo irakurri duzue. Platerak, edalontziak eta sukaldeko edozein traste ultrasoinuz garbitzen dituen arraska, jadanik salgai dago Frantzian.


Izan ere arraska honek, altzairu herkoilgaitzekoa eta bi konketatza denez, beste arraska klasikoaren itxura ku eta besteen funtzioak ere betetzen ditu. Baina besteek ez bezala, bi konketatza baten azpian, ultrasoinu-sorgailu bat ezarria dauka. Behin ontziteria, deter- genterik gabeko urez betetako konketa horretara sartuz gero, uhin ultrasonikoek zikinkeria askatu, kararria hauts bihurtu eta bakterioak deuseztatu egiten dituzte. Fabrikatzaileak dioenez, ontziteriaren zikinkeria mailaren arabera, 2 minututik 5 minuturarteko denbora behar da guzti hau gerta dadin.

Beraz garbikari, ura eta energia elektrikoren aurrezkoa dexentea da. Gai- nera funtzionamendua ia guztiz ixila da eta sistema, alderdi mekanikorik gabe- koa denez nahikoa matxuragaitza gertat- zen da.

Ultrasoinuak produzitzeko, kuart- zozko kristalak erabiltzen dira. Kristal hauek, maiztasun altuko korrante elek- triko batez kitzikatuz gero, maiztasun bereko uhin mekanikoak sortzen dituzte.

Teknika hau ez da batere berria; industrian, (erlojugintzan gehienbat) piezak garbitzeko erabiltzen da. Hala ere, kasu honetan erabilitako sorgailuak garbiketa-programari bereziki egokitu- ta daude eta txanda bakoitzean garbitzen diren piezen kopurua txikia izaten da.

Nahiz eta arraskaren kasuan siste- maren efizientzia oraindik guztiz garbi ez egon, etxeko lanak egiteko laguntza handia eskain dezakeela nabari dago.







JOSTAILUAK  
MODELISMOA  
IRRATIKONTROLA

Erdiko Kale 19  
ARRASATE  
Tfnoa: 791787



JESUS ELGORO  
ELEKTROTEKNIKA  
TB - HIFI - BIDEO  
Tfnoa: 791886 ARRASATE

CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bul-tzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959


1988

|               |                            |
|---------------|----------------------------|
| Lehen Bulegoa | 190 Bulego                 |
| Lehen Bezeroa | 725.000 Bezero             |
| Lehen Milioia | 221.000 Milioiko aurrezkia |

...29 urtetan soilik.


- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,  
Lan Kide Aurrezkoa  
"Euskadiko Kutxa" da**



CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA

Euskadiko Kutxa



## SANTAMASAK 88

ABENDUAK 17, LARUNBATA

- **BERNARDO ATXAGA IDAZLEAREKIN SOLASALDIA**
- **OSKORRI**rekin JAIALDIA

ABENDUAK 18, IGANDEA

- **SANTAMAS X.KROSSA**

ABENDUAK 21, ASTEAZKENA

— **MONTERRON KULTUR ETXEAK, AED elkarteak antolatutako ITZULPEN LABUR, IPUIN, POESIA, BERTSO PAPER, ARGAZKI, KOMIKI ETA BIDEO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA.**

- **EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA**

ABENDUAK 22, OSTEGUNA

— **FRUITU, BARAZKI, HEGAZTI ETA EUSKAL HERRIAN ESKUZ EGINDAKO GAZTEN AZOKA**

- **GANADU ETA NEKAZAL MAKINERIAREN ERAKUSKETA**

- **ARTIZAU LANEN ERAKUSKETA**

— **SANTAMAS AIZKOLARI TXAPELKETA:** Midegia, Olasagasti, Larretxe eta Mendizabal

- **HARRIJASOTZAILEAK:** Iñaki Perurena, Goenatxo, Bigitegi, Pato eta Gil

ABENDUAK 23, OSTIRALA

— Haurrak opari gabe gera ez zaitezten goizeko 12etan **TXORONPIO** kaleetan zehar ibiliko da **OLENTZERORENTZAKO** errekaduak batzen.

- Arratsaldeko 7.30etan **OLENTZEROREN AGURRA**

**ARRASATEKO UDALAK FESTAK, GIRO ALAIEAN PASA DITZAZUEN OPA DIZUE ETA EKINTZA GUZTI HAUETAN PARTE HARTZERA GONBIDATU.**

“Ez dut uste Arantzazu Loidiren presentziak ezez aldatu duenik bertsozintzan, gaietara. Nik uste dut gehiago sortu beharko lirakekeela hori nabaritzeko; azken batean Arantzazu ez da asko ibiltzen jaialdian, eta txapelketetan gaiak jartzen dira zeini tokatuko zaizkion jakin gabe”.

(Joserra Gartzia, Arrasateko ikastolako irakasle izanak, “Plazara” aldizkarian)

“Kezkatuta begiratzen diogu Europari 2 arrazoiengatik: batetik, lehiakortasunaren ikuspegitik, eta salbuespenak salbu, gure enpresak ez daude, tamainuz eta ekipamenduz, lehiakor izateko prest; eta bestetik, oso kezkatu gaude kooperatibagintza ez delako bide egokia Europan lehiakor izateko, han ez bait dago gure tamainuko beste kooperatiba-elkartirik”

(Jose Ignacio Mora, Arrasateko kooperatiba-Taldearen Nazioarteko Harremanetarako Aholkulariak “Tiempo” aldizkariari)

“Aberastasuna eta enplegua egoteko, beharrezkoa da enpresari asko sortzea. Ona da Herriarentzat, ekimena duten gazte saiatuak sortzea, negozioa egin eta dirua irabazteko gogoia dutenak, alegia”

(Jose Antonio Ardanza, Arrasateko Alkate-ohi eta Eusko Jaurlaritzako egungo Lehendakariak “Tiempo”ri esana)

“Tabako-zaletasunak eragin zuzena du Estatuko populazio nagusiaren %40arengan, baina erretzailea ez den %60arentzat ere badu ondorio txarrik, nahi gabe ere behartuta bait daude tabakoaren kea irenstera leku publiko eta lantokietan, baita droga honen kontsumoak sortzen duen gastu ekonomiko ezugarria ordaintzen laguntzera ere, beren zergen bidez”

(Teresa Salvador Llivina-k “Eroski” aldizkariari)

## Zein da Arrasateko auzitegiaren egoera, eta ze arazo konkretu ditu?

“Ley de Plantas” deitutakoaren arabera, Arrasateko auzitegia desagertu egingo da, “Bake Auzitegi” bihurtuz.



Mundu osoak dakien bezala, bere kokapena ez du egokiena. Orain bi urte “Justizi Ministraritzak” lokal bat erosi zuen, baina oraindik ez dago erabiltzeko moduan. Beronen moldapena, Eusko Jaurlaritzaren lana da. Gestioak ari gara egiten lekuz aldatzeko, baina oraindik ez dugu lortu, eta hau, hemen behin-behinean edo probisionalki gauden bostgarren urtea dugu.

Bestalde, ez daukagu behar beste pertsonal lana ondo aurrera eramateko, eta ez dute ezer egiten beste arazo honi konponbidea emateko.

Egoera ez da, beraz, onena. Mondragoe urruti dago, bai Madriletik, bai Donostiatik.

Begoña Mujika Mujika  
(Arrasateko epailea)



## BILBO ASEGUROAK

Enrique Mendieta Ugarte  
Agentea

Kontzezlifoa kalea, 6 behea  
Tfnoa: 798677


ARRASATE

## Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK  
Iturriotz 15  
Tfnoa: 791516




AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIKETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892



# Arrasateko Udalaren iragarkiak

**GABONETAN...**

**EUSKARAZKO OPARIAK**

1. EUSKARAZKO:  
- Jostailu didaktikoak  
- Liburuak  
- Diskak  
- Haxeteak  
- ...

**GURE AHOLKUA: EROS ITZAZU EUSKARAZKO OPARIAK**

- Zeure seme-alabak euskaldun legez hezteko.
- Euskal kultura euskaraz eta gertutik ezagutzeko.
- Zuk zeuk ere, euskaraz bizi behar duzulako.
- Geurea eta hurbilekoa ezagutzetik hasteko.
- Lagun eta adiskideei ere, geure-geurea dena eskaintzeko.

Arrasateko Udala  
Euskara Batzordea

EUSKARA ZERBITZUA



## Modesta Gallastegi: "Ilun ikusten dut baserriaren etorkizuna."

Santo Tomasak gertu ditugula eta, gaurko honetan Modesta Gallastegirekin egon nahi izan dugu berak eta errainak jartzen duten postua behin baino gehiagotan saritua izan bait da Abenduaren 22an gure herrian ospatzen den ferian. Hirurogei a hamar urteak pasatuta dituen emakume honek lanean dihardu oraindik, eta baserriaz beste zertxobait kontatu digu oso baikor azaltzen ez bazen ere baserriaren etorkizunaz hitz egiterakoan

— **Arrasate Press: Beti ibili al zarete baserrian lanean?**

— Modesta: Bizi guztian, baserrian jaio eta bertan aritu naiz bizi guztian zehar. Lana hemen gogorra da baina asko aldatu da. Lehen ganaduekin lantzen ziren baratzak, soloak, orduak behar izaten ziran, oraintraktorearekin ordu batetan egindezakigu lan hori. Dena den lan gogorra izaten segitzen du. Makurka eta asko aritu behar izaten da eta.

— **Zuek emakume bi aritzen zarete lanean, gizonaren falta ikusten al da?**

— Beno gizonik ez dago eta gu aritu behar, semea artzaia izatean ez da hemen egoten. Dena dela makinak, guk ez ditugu erabiltzen, semeren bat etorri eta berak lantzen du lurra gero guk lana egin ahal izateko.

— **Nola ikusten duzu baserriaren etorkizuna?**

— Hilun. Gaur egun dauden arauk ez diote baserriari inolako mesederik eginten. Barazkietatik bakarrik ezin daiteke bizi, bizitzeko

adina ez dute ematen eta ogiari edo txorizoei ebatu behar diezu, sanidadekoek saltzen uzten ez digutelarik.

Zumarragan, Santa Luzia eguneko ferian adibidez, sanidadekoak etorri eta ez ziguten ez txorizo, ez odoloste, ez buzkantzarik saltzen utzi. Poteak ere ez. Piper poteak ere erretirarazi zizkiguten. Hori egin behar baldin badigute horrenbeste lan egiteak ez du merezi.

Behiak edukitzea ere ez du merezi. Jendeak komoditatea nahi du, adibidez igandeetan 11 edo 12ak aldera altxatzea gustatzen zaio eta baserritarra ordu horretarako etxean egon behar da bueltan. Guk jadanik kenduta ditugu eta gure auzoan batek baino ez du segitzen esnea saltzen.

— **Feria egun batean normalean baino gahiago saltzen da?**

— Bai, askoz gahiago.

— **Eta prezioak?**

— Beno gareztiago, baserritararentzat egun ona da, salmentarako, jende asko egoten da eta.

— **Desberdinak al dira gaur egun egiten diren feriak eta duela 40 urte egiten zirenak adibidez?**

— Bai gaur egungo feria egunak eta lehengoak desberdinak dira. Ni txikia nintzenean herriko plazan tresnak saltzen ziren, baserriko tresnak gehien bat, ganadu mantak, uztaiak etab. Ganadu feria, Portaloiko arbolak dauden



tokian egiten zen, hori zen benetan feriaeta txerriena Zerkaostetan. Gero ferialekura aldatu zen ganadu feria. Goizez, barazki azoka, ostiral arrunt batekoa bezalakoa izaten zen. Garibaien, erromeria egoten zen eguardian hasita, bost edo sei soinujole ile-eran egoten ziren pieza txakurraundi bat kobratuta.

— **Santo tomas eguneko ferian zer saritzen da, kalitatea ala itxura?**

— Biak saritzen direla esango nuke. Baina bertako generoari inportantzia emanez gehien bat. Orain toldopeetan kanpoko genero ugari hartzen da, beste leku batzuren antzera, baina hemen hori ez da saritzen dena.

— **Feria askotara joaten al zarete?**

— Zumarragara, Elgetara, Elgoibarrera eta Arrasateko feriara.

— **Azkenik zein da feria batean saria lortzeko sekretua?**

— Lana, besterik ez dago.

## Besaideko presidente berria, datorren hilean

Asteartean, hilak 13, Besaide Mendizale Elkarteak bere urteko Ohizko Batzar Nagusia eta Batzar Berezia egin zituen.

Besaidek 1.215 bazkide ditu, hauetatik 533 federatuak (474 nagusi, 44 gazte eta 15 ume). Federakundearen urtekariaren arabera, Gipuzkoako bigarren taldea da eta Euskadiko gorenatariko bat, federatufitxei dagokienez. Nazioarteko irteeratarako 130 noragiri, eta Camping eta Caravaning karnet berriak ere egin dira.

Programatutako irteera guztiak aurrera eraman dira. Lehengo aldiz, "1. Leintz Bailarako bira" egin zen, 92 partehartzailerekin.

Eski-sailak 465 bazkide ditu, eta 326 karnet tramitatu ditu denboraldi honetan. Astebukaerako 10 irteera, 4

egunetako bat eta astebeteko beste bat egin dira.

Atal hauetaz gain, badabilza funtzionatzen beste batzuk. Espeleologia taldea, esaterako, Labeko Koban lanean aritu dena. Eskalatzaille taldeak Udalak antolatutako ikastaroan hartu zuen parte.

Datorren urterako ere, ekintza pila egiteko asmoa dago, hauen berri aurrerago emango delarik.

Batzar Bereziari dagokionez, presidente berriaren hautaketa hila-bete atzeratzea erabaki zen, 89ko Ur-tarrilaren 17an Batzar Berezi berri bat konbokatuko delarik.

### Igandean, irteera interesantea

Datorren igandean mendira irteera polita egingo da. Honako hau duzue ibilbidea: Bidania-Ernio-Gazu-

me-Aia-Orio. Igandean goizeko 7etan Portaloitik izango da irteera, eta bi prezio ezberdin daude: bidaia bakarrik 700 pta. kostatuko da, eta bidaia eta bazkaria, berriz, 2.500 pta.

Ibilaldia Bidaniako edo Errexilgo gainean hasiko da, handik Erniora (1.072 m.) jaisteko. Bidean, gaitz guztiak sendatu ohi dituzten burdinezko aroetatik gorputza pasatzeko aukera izango dute nahi dutenek.



Ernietik Zelatun mendikara jaitsiko da, Aiako bidea hartzeko eta gero Iturriotzeko Bentetatik pasatuko da. Azkenik, Oriora jaitsiko dira, hantxe bertan bazkaria egingo delarik.

### Aletismoa: hiru record berri

Arrasateko hiru record berri eta Gipuzkoako txapelketa absoluturako


Finantzaketa: Hileko 9000 pta.tik hasita

## FIAT UNO



## KANPAZAR

Bizkaiko etorbidea, z/g - Tfnoa: 79 41 98 - ARRASATE  
Arabako etorbidea, 4 - Tfnoa: 79 77 66 - ARRASATE



## EGIDO Ordezko Piezak

### Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabllola. Tfnoa: 79 62 11



KULTUR FISIKO ZENTROA


### PAKO KARRETERO

Kontzeziño Kale Estalia  
Tfnoa: 79 97 31 ARRASATE

## KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra**  
**Ortodontzia**  
**(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea, 7bis behea ARRASATE



Iturriotz,9 Tfnoa:799457

hiru gutxieneko marka lortu zituzten "Arrasate Kirolak" taldeko atletek Donostian estalitako pistan eginitako azkenengo atletismo jaialdian.

Lehenengo *recorda* Bittor Alonsok lortu zuen pertika-jauzian: 3,60 m. Bittorek pertika berria erosi beharra du. 70.000 pta kostatuko zaio taldeari tresnak.

Jose Antonio Gayk, bestalde, 400 metrotako lasterketan 50-8ko marka lortu zuen, Arrasateko *recorda* gaintituz.

3.000 metrotako proban, Jose Ramon Petreñasek eta Luis Fernandez bergaratarrak Gipuzkoako txapelketarako gutxieneko markak lortu zituzten. Petreñasek 8-51-8ko markarekin Arrasateko *record* berria ezarri du.

## Igandean, X. "Santamasak" Koadrilen Krossa

Arrasateko Atletiko Taldeak antolatutako, datorren igandean, 12,30etatik aurrera, X. "Santamasak" Koadrila Krossa egingo da.

Honako arau hauek ezarri dira proba honetarako:

- koadrila bakoitzeko lehen bostek puntuatuko dute sailkapenerako,
- emakumezkoen sailkapena ere izango da,
- koadrila bakoitzean federatu bakarra onartuko da, eta
- izenematea dohainik izango da.

11etatik aurrera umeentzako probak izango dira. 7 urtetatik hasita, sei kategoria ezarri dira, bakoitzerako distantzia ezberdinetako lasterketak, adinaren arabera, izango direlarik.

## Jon Igoa, etorkizunaren zain

Joan den igandean Sansek 5 eta 0 irabazi zion Tarrasari. Bi gol Jon Igoak, Donostian bizi den arrasatearrak sartu zituen. Aurtengoa bere laugarren denboraldia da Sansekekin.


Almenen hasi zen bere lehenengo ostikadak ematen futbol munduan. Hemen 15 urte bete arte ibili zen, gero Errealeko Easora pasatzeko. Denboraldi bat bertan, eta Errealeko gazteekin beste bat. Eskailera-aren maila asko igo du Igoak, azkenengoa bakarrik falta zaiolarik.

Errealarekin bi partidu jokatu ditu. Lehena, orain bi denboralut, Gijonen kontra. Aurten Malagaren aurka aritu zen orain asko ez dela. Kolonian ere egon zen, egun oroitgarri hartan, Loinaz edo Loren, zaurituak, ordezkatzeko prest. Azkenean, errekuperatu egin omen ziren edo, eta Jonek ez zuen izan aukerarik Europa mailan estreinatzeko Errealarekin. Behin edo beste Toshacken "ume mimatua" deitua izan den arren, pazientziatsua izan behar itxaroten egoteko, saltoa emateko beti zain. Eta, are eta gehiago kante- ra agortezina duen Erreala bezalako talde batean. Baina, oraindik 22 urte besterik ez ditu, eta etorkizunak esango.

Berak esan digun legez, "ematen du gero eta hurbilago zaudela, baina ezin lasaitu, jo eta ke jarraitu egin behar egunero".

Iaz Ligan 19 gol sartu zituen eta bat Kopan. Aurten Ligan lau eta

Kopan beste bat lortu ditu orain arte. Jokalari golegilea dugu eta, batez ere, oso langilea.



*Jon Igoa, Errealera saltatzeko prest*

Futbolari bezala bere burua definitu zezala eskatu genion eta honako hau bota zigun: "ezaugarriren bat nabarmentzekotan, bi aipatuko nituzke, buruzko errematea, eta desmarkatzeko trebetasuna".

Beronen aldeko apostua egiten dugu, Jon Igoa ia futbolerako bakarrik bizi diren horietakoa bat dugulako.

# TROKO

## JANTZIDENDA

Olarte, 6

ARRASATE

# UGARTE


## Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 797300-8396

Telefax: 793412

## Buruan hazka egin



Ez, ez zarete sailez tronpatu, ez gara hemen gure herria menperatu duen zorriketaren bateaz arituko. Beste bat da izenburuaren arrazoia.

Gaurkoan aztertuko duguna, azken urte hauetan keinu hau sortarazi eta zabaldu duen "izurritea" da: ekulturak.

Arrasateko udala urtero eskultura simposiuma antolatzen lanean hasi zenetik, edozein txokotan ikus ditzakegu erretzen irudi zuzen nahiz oker hauek.

Lehendabiziko aldiz behatzerakoan, bapatekoa da erreakzioa, bekokia zimurtu eta astiro buruan hazka egitea, makina bat galdera bururatzeko zaizkigun artean (zuzen al dago? Ez al da bestela izango? Ze arraio...?)

Egia esan, ez zaigu arrazoirik falta, zeren beraietariko gehienek errealitatearekiko lotura galdu dute. Eskultura abstraktuak dita, gure begi profanoetara pilotak, arraultzak edota laukiak diruditenak. Halarem interpretazio honekin kontent ez, eta "hemen hau ta hor bestea zergatik egin ote duen" asmatzen saiatzeko burutzio galduei ekitez diegu.

Gure ustez eskultura hauek apaingarriak besterik ez dira. Kubo bat, esfera bat, hiruki bat, sinpleki edo aldakiren bat edo besterekin, estetikoki irudi zehatz bat bezain ederra izan daiteki, beti ere norberaren gustuen arabera. Arrasatearra ordea, maila honetara oraindik ez dela heldu deritzogu.

Bestalde, artistei betidanik harritzeko edota liluratzeko dohaina leporatu zaie. Orain bai, Arrasatearren izakera ezbaikorra ezagutuz, ez gaitu harritzen artistenganako gure erantzun bakarra burua hazkatzearena izateak. Hori bai, prezioa onena!!

Simposiumok garestiak dira oso, batez ere marmola bezalako bai nobleak erabiltzeagatik, aprobatzen diren proiektuen gehiengoak lehengai honetan lantzen baita.

Egia esan, interesgarria gertatuko litzateke bultzatzea, askozaz merkeagoak, eta plastikoki eskaintza ugari ematen dutenak. Interesgarri litzateke, halaber, Arrasateko artistak bultzatzea, orain arte batek bakarrik lortu bait du bere lana kaleratzea, eta bada hemen artista adimentsurik, ziur gaude horretaz.

M Arregi  
P. Montero

**Iosu**  
argazki denda

- \* ARGAZKILARITZAKO MATERIALA
- \* ERREPORTAIK ETA
- \* BISUTERIA

Olarte kalea 11  
Tfnoa: 79 82 60


**ARRASATE  
PRESS**

Zure publizitatea egiteko lekurik egokiena eta merkeena herrian bertan

**MUSAKOLA  
OSTATUA**

Tabena  
Jatetxea  
Bazkariak  
bodak  
banketeak  
gelak

Gipuzkoa etorpidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50



iturriotz kalea, 12

**SOKOA**

tfnoa: 79 96 25

arrasate

*Mondragonesa Grafikagintza*

paperdenda - mahaigaineko tresnak

Olarte 10 - tfnoa 79 12 63

## Bi diska, bi mundu Txomin Artola

“Berriz arte”. ELKAR argitaletxea.

Lehen garaiko historikoetakoa ez bada ere, kantari beteranoa dugu Txomin. “Olaxta” izenpean lehenengo, gero Haizea-rekin, eta ondoren bakarka, diska-gintza oparoa eman duen kantaria. Aurtengo Durangoko azokan kaleratu berria du bere azken diska, “Berriz arte” izenekoa.

Hitz batez adieraztekotan, Txomin musika gozoa da. Gozoak dira beraren ahotsa eta kantaera, gozoak doinuak eta musika-laguntzak. “Izen ala ez izen” kanta biografikoan aitortzen duenez, bere lana “gozo-gozo eta xuabe” egiten du. Beraz, gustokoa ala ez, aukera kontzientea da gozotasunarena.

Oraingo diska honekin ere, bide horri jarraitzen dio Txominek, kantu tradizional eta berriak nahastuz. Aipagarria da Amaia Zubiriaren ahots ederra, hainbat kantutan Txominenarekin korapilatzen dena. Eta aipagarriak, baita ere, Joxerra Gartzia prestatu dituen testuak, jostalariak Txominen bizitza txantxa

giroan kontatzen dutenean, sentiberak John Lennon-en heriotza gogoratzen dutenean edo lirikoak amodiozko kantuetan. Gustagarria, azkenik, “Irla han da” hitz-jokoaren pean doinu irlandar eta euskaldunez osatutako unstrumentala.

Duintasunez egindako diska, beraz. Haizea-ren lehen diska haren lilurapean jarraitzen dugunok, halako beste lan ausart eta borobilen bat espero dugu oraindik Txominengandik. Bitartean, baliagarri zaigu oraingo lan hau. Lilurarik ez badago ere, diska polita eta atsegina.

OIHUKA88. Oihuka argitaletxea.

Musika gazteenaren basoan entresaka eginez, Oihuka-k bilduma hau argitaratu berria du, La Polla, Kortatu, Tijuana in blue, Delirium Tremens, Potato eta Ancha es Castilla taldeen kantuez osatua. Esan dezagun, ezer baino lehen, talde hauek hurbiletik jarraitzen dituenak ez duela hemen ezer berririk aurkituko, lehendik plazaratutako disketatik atereak bait dira bilduma honetako kantuk.

Taldeen aukeraketa ondo egina dago, denak dira puntakoak. Aldi be-

rean, musika-esparru honetan bereizten diren molde edo ska eta reggae-ren moldetan dihardutenak. Musika gogorra eta zuzena batzuetan, landuagoa eta hornituagoa besteetan. Baina, testu berriz eta esanguratsuen bidez, gazte askoren kezka eta jarrerak adierazten dituen musika beti.

Orain arte bizkarra eman dionarentzat, musika mota hutsa baino gehiago izan den fenomeno honetara hurbiltzeko aukera paregabea, diska honek ematen duena.

Mikel Irizar

## KORTXEAK


— Txibistoko emanaldian, berriz, bi talde gazte. Lehena, 21 japonesas, oraindik ideiak landu beharra. Bigarrenean, Tam Tam Go! oso ondo. Musika freskoa, atsegina. Kantariaren ahots ederra estalia askotan. Baina ideia onak eta musikari trebeak. Gustagarriak.

— Eta larunbatean, Oskorri Amayan. Hamabost urte eta gero, indarrean dirauen taldea. Euskal musikaren gailurretariko bat. biziki gomendagarria.

# ENTZUN GAITUZUE? BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09



AHOLKULARITZA - KONTSULTA

Gaiak: Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Informatica  
Finantzaketa  
Aseguroak

BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 79 88 75

# OSTARKU DANTZALEKUA

## Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Urbarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

## Sagar konpota

Urtaro guztietako postrea dugu hau; baina Gabonetan, batez ere, inportantzia berezia hartzen duena, gure mahaietan ez da sekula falta izaten eta.

Garagartzako Barruti Txikiko Karmen Herrartek berba egin digu postre erraz honen gorabeheren gainean eta hauxe izango litzateke batezbeste atera duguna:

Sagarrak aukeratzekoan gehienek errege-sagarrak gurago izaten dituzte. Badira hala ere, gazak hartzen dituztenak. Edozein modutan ere, egosi ondoren, sagarrak ez du deseginda edo zuku-zuku eginda geratu behar. Sagarrak zuritu eta zatitu ondoren, ur apur bat eta kanela zotz pusketa bat duen lapikora botako dira. Hauei okaran-pasak eta piku-pasak gehitu eta azukrea gainetik bota. Batzuek ardo beltz pitin bat ere bota izan diote, baina hori norberaren gustora.

Su-gelditan egosi behar dira, butanoan zein txapa gainean.

Ez du, ikusten duzuen modua, zailtasun eta beharleku handirik postre honek.

*Sofia Nafarrate*

## Zizka-mizkak

Gabonetara inguratzen garen neurrian, dendetan eta, Gabonetarako jenero ugari ari da azaltzen. Betiko turroiei aurten eskaintzen zaizkigunak gehitu behar zaizkie; eta hala. pinaz eta kiwiz beterikoak ere azaldu dira.


Bestalde, langostino edo otarrainskak leku batean baino gehiagotan daude aukera onean, gezurra badirudi ere beste urte sasoi batzuetan baino merkeago.

Agertu dira pina naturalak ere; eta kapritxosorik balego, orain du aukera kakiak erosteko.

Kakia mizpira-mota bat da, laranja kolorekoa, usteldutakoan jaten dena beste mizpiren moduan. Denbora batean "Villa Amparo"n zegoen halako arbola bat udazkena iritsita-koan gorri-gorri agertzen zena... eta ia denontzat "naranjas de la China" ematen zituena.



Torre Auzo, 9  
Tfnoa: 943/781956 OÑATI



ZERAMIKA-ERAKUSKETA

Otalora, 1 - behea  
Tfnoa: 79 07 20

## Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

### GURE AMETSA JATETXEA

- \* bodak
- \* banketeak
- \* negoziotako otorduak

EGUBERRI ON ETA URTEBERRI OPAROA  
DESIO DIZUE

GATZAGA

## Elikadura eta hazkundera

Hamar urte baino gutxiago duten haurrentzat, jatorduak bizipen funtsezkoak izaten dira. Berauetan, familiak dituen ohiturak markatzen direlarik, gurasoen jarrera eta portaera imitatzen hasiko bait dira. Horrela, ba, famili jatorduak haurren heziketa barruan garrantzi handia dute; gainera, giro egokian, presarik gabe, eta familiaren inguruan egin beharko lirateke.

Egunean zehar, nola banatu beharko genituzke janariak jatorduetan? Europan egindako ikerketatan oinarriturik, Andre doktoreak zera adierazten du: egunean zehar haurrak behar duen energia, bere aktibitate fisikoa baita intelektuala ere kontutan harturik, %25 gosarian, %30 bazkarian, %15 askarian eta %30 afarian hartu beharko lukeela.

Horretarako, txikitatik hasten da

janarien banapen hau; hiru urtetik aurrera bi jatordu nagusi (bazkaria eta afaria) eta beste bi, bigarren mailakoak, finkatuko dira.

Pixkanaka ohitura berriak sartzen saiatuko gara; hiru eta bost urte bitartean: fruitu ezberdinak, barazki egosiak eta gordinik ere bai; garai honetan esnearen premia duela ez dugu ahaztu behar eta neurri handian, litro erdi, gutxienez.

Dena den, janariak prestatzeko moduak oso sinplea izan behar du adin hauetan, inolako espeziarik gabe eta janariak berez duen gustua ahalik eta gehien gordez.

Orain dela urte batzuk hemen, Arrasaten, elikadurari buruzko inkesta bat egin zen; han, noski, gauza interesgarri asko agertu ziren, eta garbi agertzen zen janarien banaketa ez zela egokia: eguna hasteko, gosariak oso urriak

hartzen bait ditugu normalean. Gerroztik egin dira kanpaina batzuk gosaria hobetzeko, baina esango nuke ez dela aldaketa handirik egin.

Honek badu bere garrantzia; izan ere, eguna behar den bezala hasteko, gorputzari beharrezko dituen elikagaiak eman beharko dizkiogu.

Baina nola esango diegu haurrei ondo gosaltzeko, guk geuk kafesnea bakarrik edanez hasten badugu eguna?

Gure seme-alaben ohiturak orain ari gara finkatzen, eta gure laguntza eskaini behar diegu gure jarrera ona erakutsiz. Horrela, osasuna hobetuz joango gara.

*Eukeni Olabarrieta*

*Arantxa Lizaso*



### AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN

- gogorak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

**Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!**

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

**Zure betaurreko eta lentilen aseguroa, dohain**

## ETXEBIZITXAK

- San Biatorreko irakasle bik pisu bat alokatu behar dugu. Deitu bazkalorduetan: - Tere: 94-4625909.-Julu: 94-4676767.
- Pisu bat salgai Aretxabaletan. Bedarretako S.Migel kalea,11-1 ezka.
- Pisu bat alokatu behar dut Arrasaten. 94-4359334. (Mari Karmen).
- Pisu bat erosi edo alokatu nahi dut. Presazkoa. Tfnoa: 4372223.
- Etxebizitza indibiduala salgai. 2 solairu eta 22 m<sup>2</sup> tako lurraginguruan. Tfnoa eta altzariekin. Hondarribia kalea. Interesatuak dei 796591ra.—Prezioa elkarrekin erabakitzeotan—.
- Pisu bat salgai herri erdian. Izagirre plaza,4. Bainugela, 2 logela, egongela, ganbara. Informazioa: 794218.
- Eguzki Dorrean: pisu bat salgai. 3 logela, egongela, bainugela, 2 logela, ganbara.796765.
- Pisu bat salgai Arrasaten. Etxe Oste kalea, 6-2.D. 3 logela, egongela, jangela, 2 bainugela, sukaldea, garajea, ganbara zabala eta berokuntza sistema indibiduala.
- Kontsultategirako lokal bat salgai. (100m<sup>2</sup> baino gehiagokoa). 797632.
- Merkataritzarako lokal bat salgai. (100m<sup>2</sup> baino gehiago). Tfnoa: 797632.
- Alokatzeko pisua behar da Arrasaten. Tfnoa:793952.
- Garaje - toki itxi bat salgai Villanparon. Galdetu gauean 795528 telefonora.
- Leku onean, pisu bat alokagai: 3 logela, egongela, jangela, sukaldea eta bainugela. Balkoiak ere baditu. 795392.

- Altzariak dituen pisu bat salgai. Maitena kalea, Arrasate. 140m<sup>2</sup> . Sukaldea, egongela, 2 bainugela, 3 logela, kristaleria bikoitza. Propanozko berokuntza. Hari musikala. Gara-jea (14m<sup>2</sup>). Tfnoa: 795058.
- Pisua salgai Arrasaten. Deitu lanegunetan, goizeko 9etatik 12etara. 791011. Juan Jose Alkala.
- 60m<sup>2</sup>tako lonja bat alokagai, 30m<sup>2</sup> ditu behegainean; egokia biltegi, bulego, etab. etarako. Baditu argindarra eta ura. Erguin auzoan. 791114. (gaueko 9etatik 10etara).
- Pisua salgai Aretxabaletan. Tfnoa: 796845.
- Pisua salgai, Nafarroa 8 - 4 esk. Aretxabaleta.
- Baserria erosi nahi dugu Arrasate inguruan. Saltzekorik baduzu telefono honetan aurkituko gaituzu: 751878. Abelardo galde ezazu (Goizez mesedez, 8etatik 14etara)
- Garaje plaza hartuko nuke errentan. Tfnoa: 799511 (Pello Barrutia. Fagor).
- Pisua hartuko nuke errentan. Tfnoa: 799525 (gauean).
- Pisua salgai Aretxabaletan. Hobe-kuntzekin. Tfnoa: 794338.
- Ume bateko familiak pisua hartu nahi du errentan Aretxabaletan 18 hilabete-tarako. Interesatuak dei 797029 telefonora.
- Injineritzako 3garren urteko ikasleak pisua nahi du taldean bizitzeko. (945) 225661.

## LANA

- Esperientziadun neska batek etxeko garbiketarako eta umeak zaintzea bezelako lanak egingo lituzke. Tfnoa. 796190—799420.

- 25 urteko neska ezkondu batek etxeko lanak edo antzerakoak egingo lituzke orduka arratsaldetan. 798634. Tere.
- 16-21 urte bitarteko neska bat behar da, Arrasaten umeak zaintzeko. Nahitaezkoa euskaraz hitz egitea.
- Esperientzia duen neska prest dago etxeko garbiketarako eta umezaintza bezelako lanak egingo. Tfnoa: 796120.
- Neska prest dago asteburuetan umeak zaintzeko. Tfnoa: 791890 (Josune).
- Lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten. (Elena 763590).

## SALEROSKETAK

- HI-FI ekipoa salgai. Garantia du. Philips markakoa. MiDi motakoa bere altzariarekin. Merke. Aramaiona kalea 4,5.D. Galdetu Fabirengatik 2etatik 5etara edo 8etatik aurrera.
- Portaeskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 790900 (Jose Felix).

## IRAKASKUNTZA

- Mantenimendu gimnasia, Erguin ikastetxean. Orduetgia 7etatik 8etara. Informazioa 798072 (Jose).
- Ingeleseko klaseak ematen dira, talde txikitik, egun osoan zehar. Tfnoa: 791870.

## ETA BESTE

- Ikasle bat behar da Bilbon pisu bat osatzeko. (Udaletxearen inguruan, 3 gela indibidualak).
- Masaialaria Arrasaten. Masaia terapeutikoan diplomatua Uribe 16, 2.a ezker. Informazioa 797655 (Ines. 8etatik 10etara).

✂

**ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN**  
**JASO NAHI BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN**  
**IZEN-DEITURAK** .....

**HELBIDEA** .....

**HERRIA** .....

Zeharkale Estalia 1, 1. b 20500 - ARRASATE - Tfnoa: 79 71 64

†

**RICARDO BENGOETXEA GIL**

(Jaunak zeruan izan beza)  
 Abenduaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Bere emaztea, Rufina; seme-alabak, Koldo eta Miren; iloba, koinatu-koinata, loba, lehengusu, eta gainerako ahaideak, gertaera triste honen berri ematen, Jesusek esanaz oroitzen dira: "Neu naiz bizituera eta bizia, niregan sinisten duena, hilik ere, biziko da". (Jn. 11:25)

Bergaran, 1988ko Abenduak 15



**Azken eskutitza**

*(bigarren kapituhua)*

Hogei urte izan dira, Kotx. Maitaneren bizitza ia osoa zure goseak asetzen; bai urdailekoak eta bai be-steak ere. Hogei urte neskame eta putarena egiten.

Eta orain, NIRE semeek beren bide propioa hartu dutenean etxetik kanpo, nire bizitza hutsik dago. Ziur naiz zuk berauen falta ez duzula sumatu ere egiten; edo agian bai, behar bada hobeki zaude horrela, giro baketsu honetan murgildua, gure artean izaten genituen solasaldi "er-gelak" jasan beharrik izan gabe.

Aspaldi da zure zain egoten ez naizela, lorategia zaintzen edota jert-se berri batentzat puntua egiten. Areago oraindik, Aitor eta Maitanek aldegin zutenetik ez nago inoiz ino-ren zain. Nire bakardadeak gorenara jo du, eta gure arteko itsasoa geroz eta zabalagoa da. Zure mundua, zure lana, zure lagunak, elkarteko afariak, zure andrazaletasuna; nirea, nire sukaldea, nire lorategi nazkantea, nire fantasiatzko liburuak...nire bakardadea.

Bost hilabete pasa dira hogeiga-rreren urtemuga hau ospatzeko bazkari hura antolatu zenuenetik, zure gogoz ez, lagunek behartuta baino. Zure senideak gonbidatu zenituen soilik, ni bakarrik bait nago munduan, eta lagun minak ere etorri zitzaizkizun beste hogei urte zoriontsu opatzera.

Gogoan harrizko hitzez izkribatu-ta gelditu zitzaidan zure bazkide den Luisek belarrira maliziaz oroita-razi zidana; bolbora-ilara bat baino bizkorrago erreko zirela gure zilar-

rezko ezteiak ospatzeko falta ziren bost urte laburrak.

Bost urte denbora luzea da ordea, amaigabea, bizimodu honek zeharo motelduko zukeena. Bane-kien, osterara, ospakizun hori inoiz ez zela iritsiko. Erabakia hartua neukan orderako; duda-mudak eduki nau horma hauetara lotua tarte honetan. Tarte neketsu eta nazkagarri honetan, maiz negar malkoz urestatu dudun tarte itzala.

Orain banoa, Kox. Betirako. Amaitu da konpromezuzko bisitaldie-tan antzeztu beharreko komeria. Zure enpresa-arazoek, egundaino nik bai-no garrantzi handiagoa izann dute-nak, eta zure beste abenturek, laster lagunduko dizute ahazten.

Ez zaitezela gero nire bila korri-ka abiatu, zure bizitzaren hustasu-naren, zentzugabeziaren, hondame-naren istorio artifizialen bat buruz ikasita; errautsen gainean eraikitako amodiozko asmakizuna. Ez nauzu aurkituko.

Ez dago atzera egiterik, Kox. Agur.

Edurnek sinatu egin du ondoren eta negar malko bat izenpearen albo bustitzera jausi zaio, baina ez da horretaz ohartu. Orri idatzi berriak egunkaritik urratu (egunkari inoiz ez estrainatua, ez bait du sekula ezer kontatzeorik izan, bere ustetan bederen) eta ohe gainean utzi ditu.

Etxeondoko garajea ate bat dago, zeinek azpian dagoen txokora eramaten duen; estrainekoz erabili zenetik, etxe honetara erdu eta hila-bete geroago, berriz ere inoiz za-baldua izan ez dena.

Lehiotik zeru estalia ikusten da, beltza, eta haizea, udazkenari amore eman nahi dioten azken hostoak bortizki astintzen. Egun goibela, ap-roposa.

Txokora daramaten egurrezko eskilarak hezetasunez berdetuak daude, irristakor. Edurnek maleta bat jaitsi du lehenik, bestea ondoren, arreta handiz. Denboraren joanak eta herdoilak txokoko atearan sarraila erabat trinkotuta utzia zuten. Bi ordu eman zituen atzo berau zabaltzeko ahaleginetan. Orain bultzatzea beste-rik ez dago. Argia oraindik badabil, atzo ere egiaztatu zuenez.

Egun hartatik ez da ezer aldatu. Denak utzi zen bezala dirau. Mahaia, bankuak, armairua, ardo boti-lentzako apal hutsak, eskuineko baztarrean ahaztuak, fregadera eta sukaldetxoa. Gas bonbona ere hor dago, beteta, sekula ere erabili izan gabea. Aurreko horman, etxearen at-zekaldera begiratzen duen lehio txi-kia itxita dago. Zabalik egongo balitz...Baina ez, ez du berak landa-tutako sagarrondoari so egiteko gogorik.

Hazetasun usain higuin-garriak estaltzen du dena. Ez dio axolarik, alabaina.

Atea ondo bultzatu du, itxi arte, liburu sendo bat maleta urdinetik atera eta, sakonki amasa hartu ondo-ren, gasa zabaldu du. Egunen batean Tolstoi-ren "Pizkundea" liburua ira-kurtzen hasiko zenaren agindua ez zuen ahaztua.

*P. Mokordo*

**HIRE**

Liburu eta oparidenda  
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

**BAZAR**  
TOKI ON

**Elektronika artikuluen salmenta**

**Gabonetako merkealdi izugarriak**

J. Carlos Guerra, 1 - Tfnoa: 799164



## Euskal liburu eta diska azoka

Frantziskotarren aretoan Abenduak 21etik-24ra.

...Eta azokan, AEDk ARRASATE-87 LEHIAKETA ezberdinen eta IOKIN ZAITEGI Itzulpen Laburren I. Sariketaren lan sarituen argitaratutako bi liburuak salgai dituzu.

### EZAGUTU ITZAZU ARRASATEKO KREATZAILEEN LANAK:

- Ipuinak: DIEGO MARTIARTU, ION ANDUEZA...
- Bertso-paperak: ...ION IÑAKI IZARZELAIA...
- Argazkia: ROBERTO MENDI, HERIBERTO ZUBIA, T. URIARTE...
- Komikia: MIREN OLAZABAL, MARIO EGUES, A. BOLINAGA...
- Poesia: DABID AGIRRE, ANUSKA LASA...
- Itzulpena: Gai interesgarriak: Erotismoa, HIES,...

LEHIAKETEN liburua: 600 pta.

ITZULPENEN liburua: 500 pta.

ORAINTXE DUZU, oso diru gutxigatik, euskarazko eta Arrasateko, bertako, OPARI bikaina egiteko aukera.

Azokaz gain, *Euskaltokian eta Arrasateko liburu dendetan* ere aurkituko dituzu.

Bertan SEASKAren egutegiak (300 pta.) eta AEDrenak ere (hauek dohainik) ere eskura ditzakezu.

**ONDO PASA SANTAMASAK ETA GABONAK !!!**

**GURUTZEGRAMA**

**Ezker eskuin:** 1.-Zinez.. 2.-Miatu. 3.-Ale, garau. Bokala. 4.- Herbaila, elbarritua. 5.- Atzizki femenoa. Har ezazu. 6.- Berrogeitamaika. ...edo zart, erabaki! 7.- Nirea. Bizkaiko herria.

**Goitik behera:** 1.- Babestaile. 2.- Gaisozain. 3.- Gura. Bokala. 4.- Lan edo zeregin baten burutzea 5.- Eta. Iparraldean, apur bat. 6.- Atariko. 7.- Letra grekoa. Amaren senarra.

(Soluzioak 8. orrialdean) [ELKAREk argitaratutako enbido-tik hartua]

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 1 |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 |   |   |   |   |   |   |   |
| 3 |   |   |   |   | ■ |   | ■ |
| 4 |   |   |   |   |   |   |   |
| 5 |   |   | ■ |   |   |   |   |
| 6 |   |   | ■ |   |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   | ■ |   |   |

**ZER DA?...zer da?...**

- |  |  |
|--|--|
| 1) Kenduz hazi eta gehitzen dena?                                  | 6) Kutxa txiki tapatua, sarrailik gabe giltzatua?                        |
| 2) Beti kendu gizonak eta halere gutxitzen ez dena?                | 7) Pobreak barreiatzen eta aberatsak biltzen duena?                      |
| 3) Mina da mina, ezta piperra; bizarra dauka, ezta gizona. Zer da? | 8) Itsasoan edan eta lehorrean pis egiten duena?                         |
| 4) Basoan jai, basoan hazi; herrira etorri eta bera nagusi dena?   | 9) Lapikora sartu eta egosten dena, eta jaten dugun-ean ikusten ez dena? |
| 5) Egun guztia kaka egiten eta gauz burua hartaz estaltzen duena?  | 10) Ikusten dut, ondoan dut eta ezin harrapa?                            |

**HOROSKOPOA**



**ARIES**  
(Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra)

Osasunaren aldetik, nerbioek gehiegi jatera bultzatuko zaituzte eta sekulako betekada egingo duzu. Lasai, beraz, tripa hazi bazaizu ere, ez zaude haurdun.



**TAURUS**  
(Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra)

Diru kontutan ondo doakizu dena eta diru gehiago irabazteko zorian zaude. Erne egon zaitez, 22an sorpresaren bat izango duzu eta.




**GEMINI**  
(Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 21era)

Aste honetan zure osasun egoera larriagotu egingo da. Hortaz, bada, ez jan txistor gehiegi.



**CANCER**  
(Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra)

Bizitzaren alde ona ikusten saiatzen bazara, askoz errazago gaudituko dituzu problema txiki horiek. Oporrak hartu beharko zenituzke.




**LEO**  
(Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra)

Ez eman hainbeste buelta gauzei eta aurrera egin, suertea zure alde dago eta. Maitasunari dagokionez, gogora ezazu saiatu gabe ez dagoela zer eginik.



**VIRGO**  
(Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra)

Abentura bila zabilta, baina hau ez da momenturik egokiena saltsa horietan sartzeko. Dena den, zure bizimodu zerbait aldatuko da.



**LIBRA**  
(Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra)

Horrela jarraituz gero, azkenean lanak akabatuko zaitu. Noizean behin lagunekin pote bat harteak ez dio inori kalterik egiten.



**SCORPIO**  
(Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra)

Bizimodu osasungarriegia egiten duzu; barazkiak jatea eta ohera goiz joatea onak badira ere, noizbehinka parranda egitea bihotzaren suspergarri izan ohi da.



**SAGITARIUS**  
(Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era)

Oso pozik zabilta aspaldi honetan, dena ondo ateratzen zaizulakoan. Ez izan hain konformista.




**CAPRICORN**  
(Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra)

Espabilatzen hasia bazara ere, oraindik ez duzu ligatu. Zergatik ez duzu Otamendin probatzen?



**AQUARIUS**  
(Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra)

Itxura ez da bizitzaren gauzarik inportanteena. Ez ahaztu neska ederrek mutil itsusi eta alprojak dituztela gogokoan.



**PISCIS**  
(Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra)

Gauzak aldatzea nahi duzu, baina ez dakizu nola. Ez egin ezer, gauzak berez aldatuko dira eta.

**Zenbat igotzen da Gabonetan janaritan gastatzen duguna?**

Beti esan ohi dugu Gabonak heltzen direnean inoiz baino gehiago gastatzen dugula gure sabelak betetzen. Konkreteriki %23an igotzen da janaritan gastatzen duguna.

Zehazkiago esateko, familia bakoitzak arku-metan 2.5 bider gehiago; ardo onetan ("jatorrizko izendapena" dutenetan) hiru aldiz; alkoholdun edarrietan lau aldiz eta cava eta champagnetan 7 aldiz gehiago

Eskerrak gabonetan "paga doblea" jasotzen dugula (lana egiten dutenak jakina)

**FAGOR taldeak zenbat saldu zuen 1987 urtean?**

Gure herriko biztanleetako kopuru handi batek FAGOR osatzen duten kooperatibetan dihardu lanean, ihazko urtean kooperatiba talde honek 57.113 milioitako salmentak egin zituen. Hauetatik 17.591 milioi exportazioak izan ziren. Honek esan nahi du, aurreko urtearekin gonbaratuz, salmentak %21.3an igo zirela, lortu ziren etekinak 3.900 milioitakoak izan zirelarik.

FAGOR taldeko kooperatibetan 7000 langile ari da lanean.

**Zenbata taberna jatetxe etab dugun herrian?**

Taberna, ostatu eta antzerakoen zentsuan Arrasaten honako datu hauek ikus ditzakegu:

|  |    |
|--|----|
| - Taberna, kafetegi eta antzekoak .....      | 98 |
| - Jatetxeak .....                            | 12 |
| - Diskotekak .....                           | 2  |
| - Soziedadeak (elkarte gastronomikoak) ..... | 26 |

Ondo zaintzen gara ez?

**Zein lan mota egin duen OMIC-ek urtearen lehen 10 holabeteetan?**

|  |    |
|--|----|
| - Kontsultak eta informazioak .....            | 94 |
| (gehienak etxebizitzaren ingurukoak izan dira) |    |
| - Salaketak eta errekamazioak .....            | 65 |
| (gehiengoa merkatu-disziplinaren ingurukoak)   |    |
| - Informazio-kanpainak .....                   | 2  |
| - Inspekzioak .....                            | 8  |

**M<sup>3</sup> ura zenbat kostatzen den munduan zehar eta Arrasaten?**

National Utility Service-k aztertutako 11 herrialdeetatik Kanada da merkeena eta Alemaniako Errepublikak Federala merkeena. Kanadan m<sup>3</sup> 38pta kostatzen den bitartean, Alemania Federalean 134pta kostatzen da. Arrasaten?...50pta.

**Estatuko publizitate guztitik zenbat bereganatzen duen TVE-k?**

Guztiona omen den telebistak —publikoak, alegia— 1988ko lehen sei hilabeteetan, publizitatean gastatutako lau pezetatik bat bereganatu du, garbi esateko 76.000 milioi pta, "bakarrik".

**Arrasaten zenbat kultur elkarte dauden eta zertarako diren?**

Ba... 19 daude 4.825 bazkiderekin, honek esan nahi du arrasatear guztien %18a dagoela kultur elkareren batetan sartuta.

Hona hemen garrantzitsuenak zertarako diren:

|                             |             |
|-----------------------------|-------------|
| Arte plastikoak,            |             |
| eskulanak .....             | 47 bazk.    |
| Gazteak eta aisialdia ..... | 200 bazk.   |
| Zine-kluba .....            | 430 bazk.   |
| Euskararen alde .....       | 509 bazk.   |
| Musika .....                | 1.050 bazk. |
| Hirugarren adina .....      | 2.502 bazk. |

**Hemeretzi kultur-elkarte hoiak zenbat diru erabiltzen dute?**

Beren iharduerak garatzeko 1987an sarrera modura 87.388.049 zituzten. Kopuru horren %38a Udalaren eta beste Administrazio batzuen subentzioek osatu zuten, %28a ikasle kuotek, %10a bazkideak kuotek eta %23a beste zenbaitek bete zuten

ARRASATEKO UDALEKO KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA

EGUBERRIETAKO  
ORDUTEGI BEREZIA



|               |                    |                           |
|---------------|--------------------|---------------------------|
| Abenduak 22   | - Santo Tomas      | - Itxita                  |
| Abenduak 24   | - Eguberri bezpera | - 9etatik 14etara zabalik |
| Abenduak 31   | - Eguberri eguna   | - Itxita                  |
| Urtarrilak 22 | - Urteberri eguna  | - 9etatik 14etara zabalik |
| Urtarrilak 22 | - Errege eguna     | - Itxita                  |

**Eguberri-jai zoriontsuak eta urteberri on opa dizue AUKEAk arrasatear guztioi !!!**